Hondarribiko Udala

Esptea./ Expte. :2023PRES0001.

## 2024 URTEKO HONDARRIBIKO AURREKONTUARI BURUZKO MEMORIA

### 1.- SARRERA

Hondarribia ia 17.000 biztanlek osatzen dugun herria da. Herritarrei zerbitzu egokienak eskaintzeko asmoz legealdi hasierako lehen aurrekontua landu da. Herritarren beharretara egokitzeko eta auzoen garapena sustatzeko arlo sozialera, azpiegituretara bideratutako ekarpenak handitzeko saiakera jasotzen duen lan tresna prestatu dugu.

Aurrekontuak herritarren ekarpenak eta baliabideak banatzeko tresna dugu, beraz. Lan ildo berri baten eredu izatea nahi dugu eta horregatik errealitateari erantzun behar dio. Herritarrek ulergarriak izango diren aurrekontua izatea nahi dugu eta horrela egindako lanen balorazioa ere egiteko aukera eskaini nahi da. Aurrekontuan jasotzen diren sarrerek eta gastuek gauzagarriak eta neurgarriak izan behar dute. Eta neurtzeko tresna, hiru hileroko exekuzio txostena izango da. Udal ordezkariek eta herritarrek plangintzaren informazioa izatea nahi da. Gardentasun osoz jarduteko asmoa erakusten da.

Prozeduran ez du gobernu taldeak bakarrik parte hartu. Udal teknikarien ekarpenak eta parte hartu nahi izan duten alderdi politikoek ere eragin dute 2024ko aurrekontuaren egikaritzean. Aurrekontu parte hartzaile baten bidez herritar gehienen beharretara egokitutako erraminta osatu nahi da.

2024rako aurreikusten diren baliabideak % 15ean handituko dira udal tasa eta zergak aldatu gabe. Diru sarreren atalean baliabideak lortzeko saiakera berezia egin da, hala baliabiderik nagusiena foru

## MEMORIA EXPLICATIVA DEL PRESUPUESTO DE HONDARRIBIA DEL AÑO 2024

### 1.- INTRODUCCION

Hondarribia es un municipio formado por casi 17.000 habitantes. Se ha elaborado el primer presupuesto de inicio de legislatura con el objetivo de ofrecer los servicios más adecuados a la ciudadanía. Hemos preparado una herramienta de trabajo que recoge el esfuerzo por incrementar las aportaciones dirigidas al área social, a las infraestructuras, para adaptarlas a las necesidades de la ciudadanía e impulsar el desarrollo de los barrios.

Por lo tanto, los presupuestos son una herramienta para distribuir las aportaciones y los recursos de la ciudadanía. Queremos que sean ejemplo de una nueva línea de trabajo y por ello deben responder a la realidad. Queremos que la ciudadanía tenga un presupuesto comprensible y que de esta manera se puedan valorar también los trabajos realizados. Los ingresos y gastos presupuestados deben ser realizables y medibles. Y el instrumento de medición será el informe trimestral de ejecución. El objetivo es que los representantes municipales y la ciudadanía dispongan de información de la planificación. Se manifiesta la voluntad de actuar con total transparencia.

En el procedimiento no sólo ha participado el equipo de gobierno. Las aportaciones de los/as técnicos/as municipales y los partidos políticos participantes también han incidido en la elaboración del presupuesto del 2024. Mediante un presupuesto participativo se quiere elaborar una herramienta adaptada a las necesidades de la mayoría de la ciudadanía.

Los recursos previstos para el 2024 se incrementan en un 15% sin modificar las tasas y los impuestos municipales. Se ha realizado un especial esfuerzo por lograr recursos en el apartado de ingresos, y

ESKUb4e75490-d6a0-4be8-87f4-df7b869e9e6

Hondarribiko Udala

funtsaren iturritik jasoko da. Baina nabarmentzekoa da Hondarribiko Udalak duen altxortegiari esker ere ekarpen garrantzitsua jasotzea espero dela.

así el principal recurso que se recibe es el relativo al Fondo Foral. Pero hay que destacar que también se espera recibir un ingreso importante gracias a la tesorería del Ayuntamiento de Hondarribia.

Jasoko diren baliabideen helburua Hondarribia hobeago bat egitea da. 4 urteko plangintza osatzen ari garen honetan, aurrekontuek proiektuak ahalbidetzea ekarriko dute. Datorren ekitaldirako hobekuntza horretan sakontzeko ardatz nagusiak ondorengoak dira:

El objetivo de los recursos que se recogen es hacer una Hondarribia mejor. En esta planificación de 4 años, los presupuestos traerán consigo la posibilidad de realizar proyectos. Los principales ejes para profundizar en la mejora del próximo ejercicio son los siguientes :

**Udal kudeaketarako giltza:**

Herritarren harremanak udalarekiko erraztuko dira.

Udal langilegoaren lanpostuen balorazioa egingo da.

BAZ eta Herritarren Parte-hartzerako bulego eredu berri bat sortuko da.

**La clave para la gestión municipal:**

Se facilitarán las relaciones de la ciudadanía con el ayuntamiento.

Se realizará la valoración de los puestos de trabajo del personal municipal.

Se creará un nuevo modelo de oficina de SAC y Participación Ciudadana.

**Hondarribia bizi ahal izateko giltza:**

Mendelu auzoan Opengela bat irekiko da.

Santiago Kalea biziberritzeko obra egikarituko da.

Udal eraikineko obrarekin amaituko da.

Etxebizitza publikoak egiten hasteko ekarpena egingo da.

Bidegorri sarea osatzen joango gara.

Kale eta bideen garbiketan sakonduko da.

Ekonomia biziberritzeko jarduerak burutuko dira.

**La clave para vivir Hondarribia:**

Se abrirá una Opengela en Mendelu.

Se ejecutará la obra de revitalización de Santiago kalea.

Se finalizará la obra del consistorio.

Se realizará la aportación para comenzar a construir viviendas públicas.

Se irá completando la red de Bidegorris.

Se profundizará en la limpieza de calles y caminos.

Se realizarán actividades para la revitalización de la economía.

**Herri nortasuna sendotzeko giltza:**

Kultur ekitaldi eskaintza zabalaren plangintzan sakonduko da.

San Telmo Gazteluaren ikerketak abiatuko dira.

**La clave para consolidar la identidad popular:**

Se profundizará en la planificación de una amplia oferta cultural

Se iniciarán los trabajos de investigación sobre el Castillo de San Telmo.

ESKUb4e75490-d6a0-4be8-87f4-df7b869e94e6

Hondarribiko Udala

**Osasuna bermatzeko giltza:**

Hondartza Kiroldegiaren ustiaketa udalaren bitartez egingo da.

Doluan laguntzeko programa abiatuko da.

**La clave para la garantía de la salud:**

Se realizará la explotación de Hondartza Kiroldegia por medio del Ayuntamiento.

Se iniciará el programa para el acompañamiento en el duelo.

**Gizarte kohesiorako giltza:**

Gizarte eragileen ekintza sustatzeko ekarpenak egingo dira.

Berdintasun teknikaria kontratatuko da, eta horrela Berdintasun saila osatzea ahalbidetuko da.

Kasino Zaharreko kafetegi zerbitzua esleituko da.

**La clave para la cohesión social:**

Se realizarán aportaciones para la promoción de la acción de agentes sociales.

Se contratará a un/a técnico/a en Igualdad, y así se creará el Departamento de Igualdad.

Se licitará el servicio de cafetería de Kasino Zaharra.

**Alardearen gatazka desblokeatzeko giltza:**

Bitartekarien lanei babesa eman eta baliabideak jarriko dira.

**La clave para desbloquear el conflicto del Alarde:**

Se ofrecerá apoyo a la labor de mediación y se aportarán medios.

## 2.- AURREKONTUAREN AZALPENA

## 2.- EXPOSICIÓN DEL PRESUPUESTO

### 2.1- DATU OROKORRAK / DATOS GENERALES

| | **AURREKONTUA /PRESUPUESTO 2024** | AURREKONTUA /PRESUPUESTO 2023 | DIFERENTZIA/ DIFERENCIA |
|---|---|---|---|
| SARRERA GUZTIRA *TOTAL INGRESOS* | **29.053.752** | 25.160.167 | + 3.893.585 |
| GASTUAK GUZTIRA *TOTAL GASTOS* | **29.053.752** | 25.160.167 | + 3.893.585 |
| Gastu Arrunta *Gasto Corriente* | **25.551.994** | 23.127.516 | + 2.424.489 |
| Sarrera Arrunta *Ingresos Corrientes* | **28.446.753** | 24.883.763 | + 3.562.990 |
| Inbertsioa / *Inversiones* | **3.294.930** | 2.002.051 | + 1.292.879 |

2024ko Udal Aurrekontuak % 15’5eko igoera izango du, guztira 3.893.585 € gehiagokoa. Hazkuntza honen arrazoi nagusiak Foru Aldundiaren Udal Finantzaketarako Foru Funtsaren aurreikuspena, entitate finantzarioen interesak, kirol instalazioen

El Presupuesto Municipal del 2024 se ha visto incrementado en un 15,5%, alcanzando un importe de 3.893.585 €. Las principales razones de ese aumento son la previsión del Fondo Foral para la Financiación Municipal de la Diputación

ESKUb4e75490-d6a0-4be8-87f4-df7b869e94e6

Hondarribiko Udala

kudeaketa zuzena eta hirigintza aprobetxamenduengatik ekarpen aurreikuspena dira. Sarreretan izandako hazkuntza, gastu arruntetan eta inbertsioetan erabiliko dira.

Foral, los intereses de las entidades financieras, la gestión directa de las instalaciones deportivas, y la aportación por aprovechamientos urbanísticos. El incremento en los ingresos se destinará a gasto corriente e inversión.

## 2.2.- SARRERAK KAPITULOKA / *2.2 INGRESOS POR CAPITULOS*

| SARRERA KAPITULUA / CAPS. INGRESOS | **2024** | 2023 | DIFERENTZIA/DIFERENCIA |
|---|---|---|---|
| 1.- Zuzeneko Zergak *Impuesto Directos* | **7.614.500 €** | 7.681.180 € | - 66.680 € |
| 2.- Zeharkako Zergak *Impuestos indirectos* | **450.000 €** | 550.000 € | - 100.000 € |
| 3.-Tasak eta Bestelako Zergak *Tasas y otros Impuestos* | **3.307.197 €** | 2.174.378 € | + 1.132.819 € |
| 4.-Transferentzia Arruntak *Transferencias Corrientes* | **15.586.482 €** | 14.473.705 € | + 1.112.777 € |
| 5.- Ondare Sarrerak *Ingresos Patrimoniales* | **1.488.574 €** | 4.500 € | + 1.484.074 € |
| 6.- Inbertsio Errealak Besterenduak *Inversiones Reales* | **500.000 €** | 0 € | + 500.000 € |
| 7.- Kapital Transferentziak *Transferencias de Capital* | **86.999 €** | 7.000 € | 79.999 € |
| 8.- Finantza Aktiboak *Activos Financieros* | **20.000 €** | 20.000 € | 0 € |
| 9.- Finantza Pasiboak *Pasivos Financieros* | **0 €** | 249.404 € | - 249.404 € |
| GUZTIRA: | **29.053.752 €** | 25.160.167 € | + 3.893.585 € |

**Laburbilduz, hauek dira datu esanguratsuenak:**
***Resumiendo, estos son los datos mas significativos:***

- Udal Finantzaketarako Foru Funtsa -> 14.890.445 €
  *Fondo para la financiación municipal*
- Hiri Ondasunen Gaineko Zerga -> 5.300.000 €
  *Impuesto de Bienes Inmuebles*
- Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen Gaineko Zerga -> 1.250.000 €
  *Impuesto sobre vehículos de tracción mecánica*
- Kirol Instalazioen Erabilera -> 1.179.000 €
  *Utilizacion instalaciones deportivas*
- Interesak Eperako Kontu Korrontea -> 930.000 €
  *Intereses Cuenta Corriente a Plazo*

ESKUb4e75490-d6a0-4be8-87f4-df7b869e94e6

Hondarribiko Udala

- Hiri-Lurren Balio Gehikuntzaren Gainekon Zerga -> 840.000 €
  *Impuesto sobre el Incremento del Valor del Terreno*

- Ibilgailuen Aparkamendua -> 830.000 €
  *Aparcamiento de vehículos*

- Interesak Kontu Korrontea -> 554.074 €
  *Intereses de la cuenta corriente*

- Hirigintza Aprobetxamenduak -> 500.000 €
  *Aprovechamientos urbanísticos*

- Eraikuntzen eta Obren gaineko Zerga -> 450.000 €
  *Impuesto de obras y construcciones*

- Isunak /*Multas* -> 301.000 €

### 2.3.- GASTUAK KAPITULUKA / *2.3 GASTOS POR CAPITULOS*

| GASTUAK KAPITULUA /CAP. GASTOS | **2024** | 2023 | DIFERENTZIA /DIFERENCIA |
|---|---|---|---|
| 1.- Pertsonal Gastuak<br>*Gastos de Personal* | **8.567.390 €** | 8.203.727 € | + 363.663 € |
| 2.- Ondasun Arruntak eta Zerbitzuak<br>*Bienes corrientes y Servicios* | **12.477.139 €** | 10.264.025 € | + 2.213.114 € |
| 3.- Finantza Gastuak<br>*Gastos Financieros* | **10.500 €** | 10.500 € | 0 € |
| 4.- Transferentzia Arruntak<br>*Transferencias corrientes* | **4.106.088 €** | 4.494.998 € | - 388.910 € |
| 5.- Kreditu Globalak eta Ustekabekoak<br>*Crèdito Global e Imprevistos* | **390.877 €** | 154.267 € | + 236.610 € |
| 6.- Inbertsio Errealak<br>*Inversiones Reales* | **3.294.930 €** | 2.002.051 € | + 1.292.879 € |
| 7.- Kapital Transferentziak<br>*Transferencias de Capital* | **186.828 €** | 10.600 € | + 176.228 € |
| 8.- Finantza Aktiboak<br>*Activos Financieros* | **20.000 €** | 20.000 € | 0 € |
| GUZTIRA/TOTAL: | **29.053.752 €** | 25.160.167 € | + 3.893.585 € |

Gastuetan jasotzen diren hazkundearen adierazle esanguratsuenak ondorengoak dira:

Los indicadores más significativos del aumento que se produce en los gastos son los siguientes:

ESKUb4e75490-d6a0-4be8-87f4-df7b869e94e6

Hondarribiko Udala

- Langileria Gastuak

Udal langileen kostuak aurrekontu osoaren % 30ean eragiten du. Datorren ekitaldirako jasoko den aldaketa nagusia Berdintasun Teknikariaren kontratazioa izango da. Honela sortu ahalko dugu berdintasun saila eta modu transbertsalean udal osorako lan eragina izango duen pertsona izango da.

Bestalde, lanpostuen balorazio objektiboa egiteko lanketa jasoko duen partida ere aurreikusita dago. Erraminta hau ezinbestekoa dugu udal langilegoaren estruktura osoa modu objektiboan landu ahal izateko.

- Ondasun Arruntak eta Zerbitzuak

Kapitulu honek % 21eko igoera jasotzen du. Bertan biltzen dira zerbitzu kontratazioak eta udal funtzionamenduarentzat ezinbestekoak diren erosketak.

Igoera hau onartzeko, bi gauza izan behar dira kontuan; batetik, aurreko urteetan ez zirela gastu osoak urte hasierako aurrekontuan sartzen eta bestetik KPIaren igoera nabarmenaren eraginak kostu hauen handitzea eragin duela.

- Transferentziak eta Diru Laguntzak

Aurrekontuaren eranskinean jasota daude udalak banatuko dituen diru-laguntza guztiak eta bakoitzaren izaera (zuzenak eta lehia bidezkoak).

Aurreko urteetako izaera mantentzen bada ere, diru-laguntzen plan estrategiko berria egikaritu beharrean gaude eta hausnarketa prozesua zabalik dago.

Beste entitate eta pertsonentzako transferentziak ere jasotzen dira bertan; hala nola, Bidasoa Bizirik Garapen Agentziarentzako, Txinzerrentzako, Gizarte Zerbitzuen bitartez familia eta herritarrei laguntzeko, alderdi politikoentzako eta zenbait sariketa burutzeko.

- Gastos de Personal

El coste del personal municipal supone un 30% del total del presupuesto. El principal cambio que se producirá en el próximo ejercicio será la contratación de la Técnica/o en Igualdad. Así crearemos el Departamento de Igualdad y será una persona que incidirá transversalmente en todo el ayuntamiento.

Por otro lado, también está prevista una partida que recogerá la elaboración de una valoración objetiva de los puestos de trabajo. Dicha herramienta es imprescindible para poder elaborar toda la estructura del personal municipal.

- Bienes Corrientes y Servicios

Este capítulo recoge un incremento del 21%. En él se contemplan las contrataciones de servicios y las adquisiciones imprescindibles para el funcionamiento municipal.

Para entender este incremento se ha de tener en cuenta, por un lado, que en años anteriores no se presupuestaba la totalidad del gasto y, por otro, el incremento de costes derivado del incremento significativo del IPC.

- Transferencias y Subvenciones

En el Anexo al Presupuesto se recogen todas las subvenciones a distribuir por el Ayuntamiento y la naturaleza de cada una de ellas (directas y en régimen de concurrencia competitiva).

Aunque se mantiene la naturaleza de años anteriores, debemos ejecutar el nuevo plan estratégico de subvenciones, y está abierto el proceso de reflexión.

También se incluyen las transferencias a otras entidades y personas, como a la Agencia de Desarrollo Bidasoa Activa, Txinzer, Servicios Sociales para el apoyo a familias y ciudadanía, partidos políticos y diversos premios.

ESKUb4e75490-d6a0-4be8-87f4-df7b869e94e6

Hondarribiko Udala

- Inbertsioak

Herriak behar dituen garapen eremuak jasoko dituen atalak % 64ko igoera jasotzen du, eta hala 3,3 M € jasotzen ditu.

Proposamen nagusiak ondoren zehazten dira:

- Santiago Kalea birgaitzea
- Udal eraikinean obrak bukatzea (urte luze dira obrak bukatu gabe etenda geratu zirela)
- Hiri Antolakuntzarako Plan Orokorra garatzea eta Mendeluko Plan Bereziak egikaritzen jarraitzea
- Argiteria Publikoa hobetzen jarraitzea
- San Telmo Gazteluan lanekin hastea
- Udal jabetzako etxebizitza birgaitu eta behar sozialetara bideratzea
- Harresien mantentze lanak egitea
- BAZen tramiteak egiteko gailu elektronikoa
- Hiriko ekipamenduak berritu eta hobetzea.

Inbertsio guztien taula, bakoitzaren kopuruekin, aurrekontuaren eranskinean jasoko da.

Atal honetan Hondarribiak baditu beste hainbat premia. Gobernu taldeak aurrekontu proposamenean jaso ezin izan dituen beharrak egikaritzeko lan-plangintza burutu behar du. Behar horiei erantzuteko, dagozkien prozedura administratiboekin lanean jardungo du eta gauzagarriak diren momentuan, kreditu gehigarrien bidez txertatzen joango dira. Soilik gogora ekarri, kreditu gehigarrien bidez finantzatzen diren proiektuak aurreko ekitaldiko likidazioaren itxieraren ostean soilik bideratu daitezkeela.

- Inversiones

El apartado que recoge las áreas de desarrollo necesarias para el municipio supone un incremento del 64%, ascendiendo a la cantidad de 3,3 M €.

Las principales propuestas se detallan a continuación:

- Rehabilitación de Santiago kalea.
- Finalización de las obras del consistorio (son muchos los años en los que las obras han estado interrumpidas sin llegar a finalizarse)
- Desarrollo del Plan General de Ordenación Urbana y continuación de la ejecución de los Planes Especiales de Mendelu.
- Continuar con la mejora del alumbrado público
- Inicio de los trabajos en el Castillo de San Telmo
- Rehabilitación de viviendas municipales y destino de las mismas a necesidades sociales.
- Mantenimiento de murallas
- Dispositivo electrónico de tramitación de SAC
- Renovación y mejora de equipamientos urbanos.

El cuadro de todas las inversiones, con sus respectivos importes, se recogerá en el anexo al presupuesto.

En este apartado Hondarribia tiene además otras necesidades. El equipo de gobierno debe llevar a cabo un plan de trabajo para la ejecución de las necesidades que no hayan podido ser contempladas en la propuesta de presupuesto. Para dar respuesta a estas necesidades, trabajará con los procedimientos administrativos correspondientes y en el momento en que sean factibles se irán incorporando mediante créditos adicionales. Se recuerda que los proyectos que se financien mediante créditos adicionales sólo podrán llevarse a cabo con posterioridad al cierre de la liquidación del ejercicio anterior.

ESKUb4e75490-d6a0-4be8-87f4-df7b869e94e6

Hondarribiko Udala

## 2.4.- SAILEZ-SAIL LABURPENA / RESUMEN POR DEPARTAMENTOS

Ondorengo taulan zehazten dira sailez-sail aurrekontuan jasotako kopuruak:

En la siguiente tabla se detallan las cantidades presupuestadas por departamento:

| **SAILEZ-SAIL 2024 AURREKONTUA**<br>**PRESUPUESTO 2024 POR DEPARTAMENTOS** | **KOPURUAK**<br>**IMPORTE** |
|---|---|
| Gizarte Zerbitzuak / *Servicios Sociales* | 2.133.818 € |
| Kultura eta Jaiak / *Cultura y Fiestas* | 1.391.512 € |
| Liburutegia eta Artxiboa / *Bibioteca y Archivo* | 568.151 € |
| Euskara | 307.264 € |
| Euskaltegia | 124.018 € |
| Ingurumena / *Medio Ambiente* | 658.424 € |
| Hirigintza / *Urbanismo* | 1.826.874 € |
| Zerbitzu Teknikoak / *Servicios Técnicos* | 3.603.371 € |
| Ekonomia eta Enpleguaren Sustapena<br>*Economia y Promoción de Empleo* | 396.118 € |
| Turismoa / *Turismo* | 566.200 € |
| Bide Garbiketa / *Limpieza Viaria* | 1.180.574 € |
| Hezkuntza eta Gazteria / *Educación y Juventud* | 1.711.212 € |
| Kirolak / *Deportes* | 2.182.950 € |
| Pertsonala */ Personal* | 8.567.390 € |
| Idazkaritza Orokorra / *Secretaría* | 1.482.731 € |
| Ogasuna / *Hacienda* | 498.076 € |
| Informatika / *Informática* | 411.700 € |
| Udaltzaingoa / *Guardia Municipal* | 605.779 € |
| Alkatetza eta Harremanak / *Alcaldia* | 498.190 € |
| Arma Plaza Fundazioa / *Fundación Arma Plaza* | 339.400 € |

## 3.- UDAL TALDE EZBERDINEN EKARPENAK

Aurten Udal Talde Politiko guztiei aurrekontua prestatzeko lan formula ezberdina planteatu zaie. Planteamendu honetan, taldeek ekarpenak aurrez egiteko saiakera egin da, aurrekontu proposamena ez dadin soilik Gobernu Taldearena izan, baizik eta herriko sentsibilitate guztiek bere egiteko moduko tresna izan dezagun.

## 3.- APORTACIONES DE LOS DIFERENTES GRUPOS MUNICIPALES

Este año se ha planteado a todos los Grupos Políticos Municipales una fórmula de trabajo diferente para la elaboración del presupuesto. En este planteamiento se ha intentado que los grupos hagan aportaciones previas, para que la propuesta de presupuesto no sea sólo del Equipo de

ESKUb4e75490-d6a0-4be8-87f4-df7b869e94e6

Nabarmendu nahi nuke Abotsanitz, Eaj-Pnv, EhBilduren eta PSE-EEren proposamenak aurrez planifikatutako plangintza denboran egin izana eta aurrekontua partekatzeaz gainera beraiengandik jasotako harrera eraikitzailea.

Aurrez aipatu bezala, hainbat dira legealdi honetarako Hondarribiarentzako ditugun proiektuak, baita etorkizunera begirako herri ereduaren inguruko planteamenduak ere. Guztiak urte beteko epean jasotzea eta egikaritzea ezinezkoa da, baina norabidea planifikatzen lagunduko digu guztioi.

Talde politiko ezberdinen proposamenetatik 2024ko aurrekontuan adostuta jasotako ekarpenak ondorengoak dira:

- **Abotsanitz**

  - Mendelu auzoan Opengela bat ireki -> 80.000 €
  - Santiago kaleko obra -> 1.113.623 €
  - Gorputz aniztasunaren onarpen eta osasun fisiko-mentalerako programa -> 3.000 €
  - Sormen artistikorako dirulaguntzak -> 12.000 €
  - Hondarribiko azken gabarra berreskuratzeko lanak -> 20.000 €
  - Zahartze aktiborako ekintza estimulazio kognitiboa -> 55.000 €
  - Heriotza kudeatzeko Dolu-laguntza -> 10.000 €
  - Bitartekaritza zerbitzua bizilagunen bizikidetzarako -> 10.000 €

- **EhBildu**

  - Etxebizitza hutsen eta ez irisgarrien ikerketa …………………………………….. -> 18.150 €

Gobierno, sino que responda a todas las sensibilidades del municipio.

Me gustaría destacar que las propuestas de Abotsanitz, Eaj- Pnv, EhBildu y del PSE-EE han sido fruto de una previa planificación en tiempo y, además de participar en la elaboración del presupuesto, han mostrado una actitud constructiva.

Como se ha mencionado anteriormente, son varios los proyectos que tenemos en esta legislatura para Hondarribia, así como planteamientos sobre el modelo de municipio de cara al futuro. No es posible recogerlos y ejecutarlos todos en el plazo de un año, pero nos ayudará a planificar el rumbo.

Las aportaciones acordadas en el presupuesto 2024 de las propuestas de los diferentes grupos políticos son las siguientes:

- **Abotsanitz**

  - Abrir una Opengela en Mendelu auzoa ……………………………….…..->80.000 €
  - La obra de Santiago kalea -> 1.113.623 €
  - Programa de aceptación de la diversidad corporal y la salud físico-mental -> 3.000 €
  - Subvención a la creación artística -> 12.000 €
  - Recuperación de la última gabarra de Hondarribia -> 20.000 €
  - Estimulación cognitiva para el envejecimiento activo -> 55.000 €
  - Acompañamiento al duelo para la gestión de la muerte -> 10.000 €
  - Servicio de mediación para la convivencia ciudadana -> 10.000 €

- **EhBildu**

  - Investigación sobre las viviendas vacías y las no accesibles -> 18.150 €

ESKUb4e75490-d6a0-4be8-87f4-df7b869e94e6

Hondarribiko Udala

- Kontserba fabrikaren azterlana -> 15.000 €
- Udal Eraikinetan eguzki panelak jartzeko diagnostikoa -> 18.150 €
- Akonpainamenduko animalien kudeaketa …………………………………….. -> 15.000 €
- Zaintza sentsibilizazio kanpaina (haurrak/helduak/menpekotasuna) -> 4.000 €
- Gobernu organoen publizitatea – Euskal komunikabideetan -> 20.000 €
- Bizikidetza -> 12.150 €
- Memoria ekimenak -> 18.000 €

- **PSE-EE**

- Bono denda ekarpena handitzea -> 28.000 € (33.000 € zeuden aurreikusita)
- Santiago kaleko igogailu proiektua -> 18.150 €
- Lau Haizeta eremuko argiteria proiek-> 18.150 €
- San Marko Parkeko interbent proiek. -> 18.150 €
- Artxibo dokument. digitalizatzea -> 18.150 €
- Udalbatza aretoko audio sistema berritzea …………………………………….. -> 12.000 €

**-EAJ-PNV**

- Kofradia proiektuaren diseinua eta plangintza ……………………………………-> 18.150 €
- Bakardadearen aurkako plana ……………………………………-> 18.150 €
- Eliz Musika zikloa, 40. Urteurrena Eskifaia …….…………………………..-> 20.000 €
- Goiko Errota biziberritu …………………………………..-> 20.000 €

- Estudio sobre la fábrica de conservas ………………………………..->15.000 €
- Diagnóstico sobre la instalación de placas solares en edificios municipales -> 18.150 €
- Gestión sobre los animales de compañía ………………………...…….. -> 15.000 €
- Campaña sobre la sensibilización de los cuidados (Niños/mayores/dependientes) ………………………………....->4.000 €
- Publicidad órganos de gobierno en los medios de comunicación en euskera-> 20.000 €
- Convivencia -> 12.150 €
- Iniciativas sobre la memoria -> 18.000 €

- **PSE-EE**

- Incremento de la aportación del bono denda -> 28.000 € (estaban previstos 33.000 €)
- Proyecto de ascensor en Santiago kalea ………………………………..-> 18.150 €
- Proyecto de alumbrado del área de Lau Haizeta ->18.150 €
- Proyecto de actuación en el parque San Markos -> 18.150 €
- Digitalización de documentos del Archivo ………………………………. -> 18.150 €
- Renovación del sistema de audios del Salón de Plenos -> 12.000 €

**-EAJ-PNV**

- Diseño y planificación del proyecto de la Cofradía -> 18.150 €
- Plan contra la soledad -> 18.150 €
- Ciclo de Música Sacra, 40 aniversario Eskifaia -> 20.000 €
- Revitalización de Goiko Errota -> 20.000 €

ESKUb4e75490-d6a0-4be8-87f4-df7b869e94e6

Hondarribiko Udala

## 4.- GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUEKIN UDAL AURREKONTUEN LOTURA

Udal aurrekontua oinarrizko tresna da politika eta zerbitzu publikoak Garapen Jasangarriko Helburuak (aurrerantzean GJH) lortzera bideratzeko. Beste urrats bat da Hondarribiak GJHekin duen konpromisoan.

GJHak ekintzarako dei unibertsala dira, txirotasuna amaitzeko, planeta babesteko eta pertsonen bizitzak eta etorkizuna aldatzeko.

NBEren Batzar Nagusiak 2015ean Garapen Jasangarrirako 2023 Agenda onartu zuen. 15 urteko epean bete beharreko 17 helburu jasotzen dituen plana da.

Hondarribiko Udalak helburu hauen garapenari ez badio gaurdanik heltzen, denborak aurrera egin ahala, geroz eta zailagoa izango da 2030 agendak markatzen dituen helburuak betetzea; adibidez, trantsizio energetikoarekin gertatzen zaigun bezala.

Ondorioz, nire ustez beharrezkoa da GJHen lurreratze ariketa bat egitea Hondarribiko errealitatearen bidez. Horretarako, aurrekontu hau abiapuntu bat da datorren ekitaldirako aurreikusitako ekimenak lehenengo aldiz GJHekin lerrokatzen saiatzeko.

Hurrengo ekitaldietan alderdi hori baloratu beharko da, eta etengabeko hobekuntzarako mekanismoak ezrri beharko dira.

Garapen iraunkorrak desberdintasunak amaitzea eta gizarteratzea sustaten duen trantsizio sozial eta ekologikoari ekin behar dio, gure planetaren mugak kontuan hartuta. Hartarako, GJHak hiru dimentsio hauetan taldekatzea proposatzen da:

## 4.- VINCULACIÓN DE PRESUPUESTOS MUNICIPALES CON OBJETIVOS DE DESARROLLO SOSTENIBLE

El presupuesto municipal es un instrumento fundamental para orientar las políticas y servicios públicos a la consecución de los Objetivos de Desarrollo Sostenible (en adelante ODS). Se trata de un paso más en el compromiso de Hondarribia con los ODS.

Los ODS constituyen un llamamiento universal a la acción para poner fin a la pobreza, proteger el planeta y mejorar las vidas y las perspectivas de las personas.

La Asamblea General de la ONU aprobó la Agenda 2030 para el Desarrollo Sostenible en 2015. Se trata de un plan que recoge 17 objetivos a cumplir en un plazo de 15 años.

Si el Ayuntamiento de Hondarribia no aborda el desarrollo de estos temas desde ya, a medida que pase el tiempo será cada vez más difícil cumplir los objetivos marcados por la Agenda 2030; por ejemplo, como nos sucede con la transición energética.

Por tanto, considero necesario empezar a hacer un ejercicio de aterrizaje de los ODS a través de la realidad de Hondarribia. Para ello, este presupuesto supone un punto de partida para tratar de alinear por primera vez las iniciativas previstas para el ejercicio siguiente con los ODS.

En próximos ejercicios se deberá valorar este aspecto, así como establecer mecanismos de mejora continua.

El desarrollo sostenible debe abordar una transición social y ecológica que acabe con las desigualdades, fomente la inclusión y lo haga asumiendo los límites de nuestro planeta. Por ello, se propone agrupar los ODS

ESKUb4e75490-d6a0-4be8-87f4-df7b869e94e6

Hondarribiko Udala

- Dimentsio soziala

○ 1. GJH, Txirotasuna amaitzea

  ▪ Zaurgarritasun edo bazterkeria egoeran dauden pertsonentzako gizarte prestazioak hobetu eta egokitu nahi dira (GLL, Familientzako Laguntzak, Konpainia egitea, etab.)
  ▪ Presan babestutako etxebizitza sustatuko da eta sustapen berriak aztertuko dira lehenbailehen eraiki daitezen.

○ 2. GJH, 0 gosea

  ▪ Tokiko ekoizpenaren sustapena garatuko da lehenengo sektorea sustatuz.
  ▪ Tokiko arrantza, abeltzaintza eta nekazaritza ekonogikoa lehenetsiko da.
  ▪ Sentsibilizazio eta ezagutza mekanismoak ezarriko dira etorkizuneko garapen egoki bat proiektatzeko.

○ 3. GJH, Osasuna eta Ongizatea

  ▪ Aire kalitatea hobetzea mugikortasun jasangarriaren bidez

  - Oinezkoen eremuak hobetzea
  - Bidegorri sarearen sistema handitzea eta hobetzea
  ▪ Hiritarren artean bizi osasungarrirako ohiturak sustatzea
  ▪ Zahartze aktibiko programak landuko dira Kasino Zaharreko Batzarrarekin, Nagusilanekin eta bestelako gizarte eragileekin.

en tres dimensiones; social económica y ambiental.

- Dimensión Social

○ ODS 1, Fin de la Pobreza

  ▪ Se pretenden mejorar y adecuar las prestaciones sociales a personas en situación de vulnerabilidad o exclusión (AES, Ayudas a Familias, Acompañamiento, etc.)
  ▪ Se impulsará la promoción de vivienda protegida en Presa y se analizarán nuevas promociones para que empiecen a construirse lo antes posible.

○ ODS2, Hambre 0

  ▪ Se desarrollará la promoción de la producción local a través del impulso al primer sector.
  ▪ Se priorizará la pesca, agricultura y ganadería ecológica local.

  ▪ Se establecerán mecanismos de sensibilización y conocimiento para proyectar un desarrollo futuro adecuado.

○ ODS3, Salud y Bienestar

  ▪ Mejora de la calidad del aire mediante la movilidad sostenible

  - Mejora de espacios peatonales
  - Incremento y mejora del sistema de red de bidegorris
  ▪ Promoción de hábitos de vida saludable entre la ciudadanía
  ▪ Se trabajarán programas de envejecimiento activo junto con la

ESKUb4e75490-d6a0-4be8-87f4-df7b869e94e6

Hondarribiko Udala

- Kirola sustatu eta bultzatuko da.
- Hondarribian bide segurtasuna sustatuko da.
- Aparkamendu sistemaren hobekuntza aztertuko da
- Edateko kalitate handiko ura hornituko da
- Bide segurtasunean sakontze, hobetze eta sentsibilizazio lana egingo da

- 4. GJH, Kalitatezko Heziketa
  - Hondarribian euskararen ezagutzan eta erabileran sakontzea
  - Hezkuntza eta kultur ekipamenduetarako irispidea eta horiek hobetzea inklusioaren eta berdintasunaren ikuspegitik.
  - “eskolarako bideak” proiektua garatzen jarraitzea
  - Teknologia berrietarako irispidea sustatzea
  - Tokiko eta gertuko ekonomia sustatzeko eremuak sortzea

- 5. GJH, Genero Berdintasuna
  - Berdintasun Departamentua sortzea eta langile egokia kontratatzea
  - 2. Berdintasun Plana garatzea
  - Genero ikuspegia duen plangintza
  - Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa
  - Hiritarrak berdintasunaren alorrean sentsibilizatzea
  - Ordaindu gabeko etxeko lanak eta zaintza lanak aitortzea

Junta de Kasino Zaharra, Nagusilan y otros agentes sociales.

- Promoción y fomento del deporte.
- Fomento de la seguridad vial en Hondarribia
- Estudio de mejora del sistema de estacionamiento
- Abastecimiento de agua potable de alta calidad
- Profundizar, mejorar y sensibilizar en la limpieza viaria

- ODS4, Educación de Calidad
  - Profundizar en el conocimiento y uso del euskera en Hondarribia
  - Acceso y mejora de equipamientos educativos y culturales desde el punto de vista inclusivo e igualitario.
  - Seguir desarrollando el proyecto “eskolarako bideak”
  - Fomento del acceso a nuevas tecnologías
  - Creación de espacios para el impulso de la economía local y de cercanía

- ODS5, Igualdad de Género
  - Creación del departamento de Igualdad y contratación del personal adecuado
  - Desarrollo del 2º Plan de Igualdad
  - Planificación con perspectiva de género
  - Prevención para la violencia contra las mujeres
  - Sensibilización de la ciudadanía en materia de igualdad
  - Reconocimiento del trabajo doméstico y de los trabajos de cuidados no remunerados

ESKUb4e75490-d6a0-4be8-87f4-df7b869e94e6

- 10. GJH, Desberdintasunak murriztea
  - Lehen mailako eta kalitateko gizarte laguntza
  - Populazio migratzailea gizarteratzeko plangintza eta ekintzak
  - Elkarte eta talde sarea sustatzea
  - Hirigintza Planaren plangintza, kudeaketa eta egikaritzea
  - Etxebizitzaren gizarte politikak garatzea
  - Etxebizitza hutsaren tasa hobetzea
  - Tokiko zerga sistema aztertzea eta eguneratzea

- Dimentsio Ekonomikoa
  - 8. GJH, Lan Duina eta Hazkuntza Ekonomikoa
    - Kalitateko enplegua sustatzea
    - Tokiko ekoizpena eta ekologikoa balioan jartzea.
    - Jarduera ekonomiko berrien garapena sustatzea
    - Ekintzailetza sustatzea
    - Tokiko ekoizleen eta merkaturatzaileen artean sareak eta harremanak sortzea
      Sektore behartsuei begira (emakumeak, gazteak, 50 urtetik gorakoak) enplegua sortzea
    - Hiritarrak lan seguruari buruz sentsibilizatzea.
    - Tokiko natur eta kultur ondarea mantentzea eta hobetzea
    - Hiriko itsas ondarea balioan jartzea

- ODS10, Reducción de las desigualdades
  - Asistencia social primaria y de calidad
  - Planificación y acciones encaminadas a la integración de población migrante
  - Fomento de la red de asociaciones y colectivos
  - Planeamiento, gestión y ejecución del Plan Urbanístico
  - Desarrollo de políticas sociales de vivienda
  - Mejora de la tasa de vivienda vacía
  - Analizar y actualizar el sistema tributario local

- Dimensión Económica
  - ODS8, Trabajo Decente y Crecimiento Económico
    - Fomento del empleo de calidad
    - Puesta en valor de la producción local y ecológica
    - Fomento del desarrollo de nuevas actividades económicas
    - Fomentar el emprendizaje
    - Crear redes y relaciones entre productores y comercializadores a nivel local
    - Fomento del empleo para sectores desfavorecidos; mujeres, jóvenes, mayores de 50 años
    - Sensibilización del trabajo seguro entre la ciudadanía
    - Mantenimiento y mejora en el patrimonio natural y cultural local
    - Puesta en valor de patrimonio maritimo de la ciudad

ESKUb4e75490-d6a0-4be8-87f4-df7b869e94e6

- 9. GJH, Industria, Berrikuntza eta Azpiegitura
  - Jarduera ekonomikoak legez betetzen direla zaintzea
  - Eremu publikoen okupazio pribatiboari buruzko araudia garatzea
  - Enpresa eta merkataritza sarean ekimenak sustatzea
  - Udal garraio publikoa ezartzeko azpiegitura garatzea
  - Errepide eta eremu publiko jasangarrien azpiegitura hobetzea
  - Auzo-bideak garatzea eta hobetzea
  - Udaleko informazio sistemak hobetzea

- <u>Ingurumen Dimentsioa</u>

- 6. GJH, Ur Garbia eta Saneamendua
  - Txinzerren bidez edateko uraren hornidura kudeatzea; kalitatea eta kopurua
  - Hondakin urak husteko eta tratatzeko kudeaketaren etengabeko hobekuntza
  - Uraren erabilerari eta kontsumoari buruz sentsibilizatzea
  - Estolderia eta ur hustuketa sistema mantentzea

- 7. JGH, Energia eskuragarria eta ez kutsagarria.
  - Udal instalazioetako energia kontsumoa optimizatzea

- ODS9, Industria, Innovación e Infraestructura
  - Vigilancia del cumplimiento legal de las actividades económicas
  - Desarrollar un reglamento de ocupación privativa de espacios públicos
  - Promoción de iniciativas en tejido empresarial y del comercio
  - Desarrollar la infraestructura para establecimiento de transporte público municipal
  - Mejora de la infraestructura de carreteras y espacios públicos sostenibles
  - Desarrollo y mejora de caminos vecinales
  - Mejora en sistemas de información del Ayuntamiento

- <u>Dimensión Ambiental</u>

- ODS6, Agua Limpia y Saneamiento
  - Gestión del abastecimiento domiciliario de agua potable a través de Txinzer; calidad y cantidad
  - Mejora continua en gestión de evacuación y tratamiento de aguas residuales
  - Sensibilización sobre uso y consumo del agua
  - Mantenimiento del sistema de acantarillado y evacuación de aguas

- ODS7, Energía asequible y no contaminante

ESKUb4e75490-d6a0-4be8-87f4-df7b869e94e6

Hondarribiko Udala

- Argiteria publiko jasangarria honetzeko inbertsioa
- Udal ibilgailuen flotaren energia kontsumoa optimizatzea
- Txirotasun energetikoko egoerak murrizteko gizarte neurriak sustatzea
- Aplikatutako hobari fiskalen azterketa

○ 11. GJH, Hiri eta komunitate jasangarriak.

- Hiritarrek parte hartzeko mekanismoak gaitzea
- Tokiko elkartze jarduera sustatzea
- Berdeguneak mantentzea eta hobetzea
- Kalitatezko oinarrizko ekipamenenduak eta zerbitzuak bermatzea
- Landa eremuen eta hiri eremuen arteko loturak sustatzea eta hobetzea
- Gizarteratzea errazten duen etxebizitza duina planifikatzea
- Mendelu sustatzea eta berroneratzea, berroneratu beharreko eremu degradatu gisa.
- Puntu Ilunak programa garatzea bide seguruen hobekuntza gisa, genero ikuspegiarekin.
- Mugikortasun jasangarriago baten eredua sustatzea eta pertsonentzako eremuak berreskuratzea
- Tokiko garraio publikoa ezartzeko baliabideak garatzea
- Kutsadura akustikoa murrizteko ekintzak sustatzea
- Hiri hondakinak murrizteko eta horien kudeaketa hobetzeko planak garatzea
- Ekonomia zirkularreko politikak garatzeko ekintzak hastea

- Optimización del consumo energético de instalaciones municipales
- Inversión en mejora de alumbrado público sostenible
- Optimización del consumo energético en la flota de vehículos municipales
- Impulso de medidas sociales para reducir situaciones de pobreza energética
- Estudio de las bonificaciones fiscales aplicadas

○ ODS11, Ciudades y comunidades sostenibles

- Habilitación de mecanismos de participación ciudadana
- Promoción de la actividad asociativa local
- Mantenimiento y mejora de zonas verdes
- Garantizar equipamientos y servicios básicos de calidad
- Fomento y mejora de conexiones entre zonas rurales y urbanas
- Planificación de vivienda digna que favorezca la integración social
- Impulso y recuperación del barrio Mendelu como zona degradada a recuperar
- Desarrollo del programa Puntu Ilunak como mejora de caminos seguros con perspectiva de género
- Fomentar un modelo de movilidad mas sostenible y recuperar espacios paa las personas.
- Desarrollo de recursos para implantar el transporte público local
- Promoción de acciones encaminadas a reducir la contaminación acústica

ESKUb4e75490-d6a0-4be8-87f4-df7b869e94e6

- 12. GJH, Ekoizpen eta Kontsumo jasangarriak
  - Hondakinen jasotze, kudeatze eta tratatze lanak hobetzea
  - Sentsibilizazio eta komunikazio kanpainak abiaraztea hiritarren artean kontsumo arduratsua sustatzeko
  - Hondakin gutxiago sortzeko ekintzak garatzea
  - Birziklatze eta balorizazio tasak hobetzea
  - Udalaren ingurumen inpaktua murrizteko ekintzak planifikatzea
- 13. GJH, Klimaren aldeko ekintza
  - Hirigintza planeamenduan klima aldaketara egokitzeko ikuspegia txertatzea
  - Itsaso mailaren igoeraren ondoriozko beharrak aztertzea eta horiei erantzuna ematea
  - Hiritarren artean sentsibilizazio ekintzak sustatzea
- 14, GJH, Urpeko bizia
  - Bainurako uren kalitatea kontrolatzea
  - Itsasora egiten diren hondakin isurtzeak kontrolatzea eta ekiditea.
  - Baxurako arrantza sektorearen ezagutza sustatzea eta bultzatzea
  - Itsasoaren egoera ona kontserbatzeari garrantzia emateko ekintzak abian jartzea

ESKUb4e75490-d6a0-4be8-87f4-df7b869e94e6

  - Desarrollar planes para reducir los residuos urbanos y mejorar su gestión
  - Iniciar acciones para desarrollar políticas de economía circular
- ODS12, Producción y Consumo sostenibles
  - Mejora en recogida, gestión y tratamiento de residuos
  - Puesta en marcha de campañas de sensibilización y comunicación para impulsar el consumo responsable entre la ciudadanía
  - Desarrollar acciones encaminadas a minimizar la generación de residuos
  - Mejorar las tasas de reciclaje y valorización
  - Planificar acciones encaminadas a la reducción del impacto ambiental del Ayuntamiento
- ODS13, Acción por el Clima
  - Introducir la perspectiva de adaptación al cambio climático en el planeamiento urbanístico
  - Analizar y responder a necesidades derivadas de la subida del nivel del mar
  - Promoción de acciones de sensibilización entre la ciudadanía
- ODS14, Vida submarina
  - Control de la calidad de aguas destinadas al baño
  - Controlar y evitar vertidos de aguas residuales al mar
  - Promoción e impulso del conocimiento del sector pesquero de bajura
  - Puesta en marcha de acciones encaminadas a la importancia de la

Hondarribiko Udala

- 15. GJH, Lurreko ekosistemen bizia
  - Hondarribiko paisaia kontserbatzea
  - Jaizkibeleko eta Jaitzubiako paduren natur ondarea sustatzea eta balioan jartzea
  - Hiriko baliabide naturalen erabilera arduratsuari buruz sentsibilizatzea
  - Agroaldean lehen sektoreko ekoizpeneko eta ekoizpen ekologikoko sistemak sustatzea eta helburu berarekin bestelako eremuak bilatzea.

conservación del buen estado del mar

- ODS15, Vida de ecosistemas terrestres
  - Conservación del paisaje de Hondaribia
  - Impulso y puesta en valor del patrimonio natural de Jaizkibel y marismas de Jaizubia
  - Sensibilización sobre el uso responsable de recursos naturales de la ciudad
  - Dar impulso a sistemas de producción primaria y ecológica en Agroaldea y búsqueda de otros espacios con el mismo fin.

**ALKATEA / El Alcalde**
**Igor Enparan Araneta**

Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: ESKUb4e75490-d6a0-4be8-87f4-df7b869e94e6
*Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronokoan: https://uzt.gipuzkoa.eus?De=03610*
*Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: https://uzt.gipuzkoa.eus?De=03610*